

# IKUSMIRAN<sup>21</sup>

Absentismoaren  
ke-lainoa argitzen

2025eko maiatza

**21**



# Ikusmiran 21 | 2025eko maiatza

## Absentismoaren ke-lainoa argitzen

### Aurkibidea

|                                                                                                                                                                            |    |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----|
| ONDORIO NAGUSIAK .....                                                                                                                                                     | 5  |
| ABSENTISMOAREN KE-LAINO ARTEAN... ..                                                                                                                                       | 6  |
| ... LANGILEON ESKUBIDEAK ERE DIRA! .....                                                                                                                                   | 8  |
| LAN MERKATUAREN ERREALITATEA ZEHARKATZEN DITUZTEN ADIERAZLEAK.<br>PREKARIETATEA OINARRI DITUZTEN LAN ETA BIZI BALDINTZAK .....                                             | 10 |
| • HEHko Prekarietate Indizea %49,01ekoa da.....                                                                                                                            | 10 |
| • Enplegu Erregularizazio Espedienteen eraginpean,<br>aldi baterako kaleratzeen bidez lanean egindako huts egiteak, absentismo tasan barnebiltzen dira 2021.urteetik. .... | 10 |
| • Lan merkatuaren zahartzeak, zaintza eta osasun arretarako denbora gehiago eskaintzea dakar .....                                                                         | 11 |
| • Osasun sistema publikoaren murrizketek, gure osasunean eragiten dute eta gaixoaldiak baldintzatu.....                                                                    | 12 |
| • Langileek adosturiko orduak baino gehiago lan egiten dute ordu estren bidez,<br>2020.urtean horietatik %63,58a ordaindu gabekoa izanik. ....                             | 13 |

**E**skuartean duzuen azterlanaren helburua, absentismoaren ke-laino artean dagoen errealitatea argitzea da. Absentismoa kapitalaren interesak defendatzen dituen patronalak sortu eta eragindakoa dela nabarmendu behar dugu, datuek baieztatzen dutenez. Izan ere, kontzeptu honen baitan zenbatzen diren lan egin gabeko egunen zatirik handiena langileen osasunarekin loturikoak dira.

## ABSENTISMOA PATRONALAK ASMATU ETA ERAGINDAKOA DA. KE LAINO ARTEAN LANGILEON ESKUBIDEAK ERE EZKUTATZEN DIRA

**2**024ean 102.000 istripu eragin ostean eta horietariko 64 hilgarriak izanik, ABSENTISMOA patronalak hauspotu duen “ke-lainoa” da prebentzio faltak eragindako sarraskia estaltzeko. Kontuan hartu behar dugu, gero eta lan istripu gehiago, ez direla lan istripuztat aitortzen, Mutualitateek patronalen interesen alde jokatzan duten paper zitala dela eta.

Izan ere, egun ABSENTISMO eragile nagusia patronala bera da, istripuen eragile masibo eta laneko gaitzen sortzaile nagusia delako. Mutualitateak baliatzen dira errealitate hau estaltzeko, kontingentzia “arrunt” horien atzean kopuru izugarria da lanak sortutakoa baita.

Absentismoa deritzoten ke-laino horren atzean, ordea, badira bestelako errealitateak, langileon lan eskubideei erabat loturik daudenak, gurasotasun baimenak, lan sindikala... Eskuarteak duzuen azterketan, eremu honi ere tarte bat eskainiko diogu.

Jarraian, hainbat ondorio nagusi ekarri nahi izan ditugu lehen lerrora:

- **Absentismoa kapitalaren interesen alde egiteko tresna da**, jendarteko marko politikoan (hautemate, pertzepzioetan) eta politika publikoetan eragiteko. Beti ere, langileon lan baldintzak murriztuz edota babes sozialerako sistema ahultzeko norabidean urrats berriak emateko alfonbra gorria ezarri nahian.
- **Absentismo tasa residuala da**, inolako azalpenik eman gabe lanera joaten ez den langile kopurua ez da esanguratsua. Eskuarteak ditugun datuen arabera, nabarmenduko genuke absentismo deitzen dioten tasa horren ia %100a lan osasunari loturiko bajak, gurasotasun edo zaintza baimenak edota delegatuei egotzitako ordu sindikalak direla (oso ohikoak diren lizentziak falta direla kontutan hartu behar dugu, datuak ez baitaude eskuragarri).
- Europako zenbait herrialdeetan absentismoa lan baldintzen hobekuntza eta **BABES SISTEMAREN** osasunarekin harremanean dagoela ulertzen da. Horren adierazle da gero eta absentismo tasa altuagoak dituztela langileen aldeko babes politikak sendoagoak/ zabalagoak/ efikazagoak diren neurrian.
- Aldiz, **Europar Batasunaren baitan absentismoa neurtzeko egoniko araudi aldaketak, ordura arteko seriearen etenaldia ekarri du**. Izan ere, 2020. urtetik aurrera ERTE bat tarteko lan egin gabeko egunak, absentismotzat jotzen ditu EUROSTAT-ek. HEH-aren kasuan, absentismo tasa handitzea ekarri du, bereziki industria sektoreko manufakturan. Beraz, esan dezakegu krisialdi ekonomiko garaian ustezko irtenbidea lortzeko harturiko neurriek, absentismoaren ke-lainoa elikatzen jarraitu dutela.
- **HEHn 2 herritarretik bat prekaritate egoeran bizi da**, enplegua eduki arren, diru-sarrerak nahikorik gabe bizitzeko duina bermatzeko. Lan baldintza gero eta prekarioagoak oinarri dituen lan merkatuan, langilea jo puntuan baino, egoera hau ahalbideratzen duten politika publikoak zuzentzea beharko luke lehentasuna izan.
- Langileen gero eta proportzio handiagoa 45 urtetik gorakoa da eta osasunaren zaintza handiagoa behar dute. Aldiz, **osasun sistema publikoaren murrizketek lan osasunean inpaktu zuzena dute eta gaixoaldiaren iraupena baldintzatzen dute**. Itxaron zerrendak handitu egin dira eta zerbitzuaren pribatizazioaren adibide da EAEko Osasun Sailaren gastu osoan itunpetze sanitarioek %9,1eko igoera eduki izana 2024. urtean aurreko urtearekiko.

Langileon osasunari dagokionean, absentismo deitzen dioten horri aurre egiteko, bi modu daude: batetik, enpresek lan osasunerako araudia betetzea, istripu zein gaitz andana murriztea ekarriko lukeena; eta bestetik, osasun sistema publikoa indartzea gaitz arruntei eraginkortasun gehiagorekin erantzuteko.

Euskal Sindikalismo Eraldatzaileak, gero eta oinarri prekarioagoak dituen lan merkatuan lan eta bizi baldintza duinak bermatzeko, langile guztientzat 1.600€-ko Lanbidearteko Gutxieneko Soldata aldarrikatzen du. Egoera zaurgarrian dauden langile kolektiboetan inpaktu zuzena izateaz gain, soldaten birbalorizazioa ekarriko luke, arrakalak txikituz eta pobreziaaren atalasetik behera kokatzen diren langile kopurua murriztuz.

Testuinguru ekonomiko ezegonkor honetan, industria sektoreak bizi duen egoerak dimentsio kezkarria hartu du, hainbat lurralde eremuetan zein herri ikuspegitik izan ditzakeen ondorioak larriak izanik. Zentzu horretan, enplegu eskubidea oinarri duen Trantsizio Ekosozial justu baterako proposamen integrala gauzatzea lehen mailako erronka dugu.

## ABSENTISMOAREN KE LAINO ARTEAN...

**L**ANAREN NAZIOARTEKO ERAKUNDEAren arabera, lan absentismoa «langilea ez da bere lantokian agertzen, edo hitzartutakoa baino ordu gutxiago joaten denean, erakundeak bertara joatea espero zuenean, edo leku horretan denbora guztian egotea espero zuenean» gertatzen da. Oro har, lan-absentismoaren kontzeptua lan-ordutegia ez betetzearekin lotzen da, ikuspegi negatibotik. Hala ere, absentismoaren definizioaren barnean, lantokira ez joatea justifikatua (gurasotasun lizentziak, ordaindutako baimenak, lan edo kontingentzia arruntengatiko aldi baterako ezintasunak edota lan istripuak ) edo justifikaziorik gabea izan daitekeela kokatzen da, kasuistika asko zabalduz eta langileon lan eskubideekin gatazkan.

Espainiar estatuan, absentismoa LANGILE ESTATUTUAren baitan dago arautua (Errege Dekretu Legislatiboa, 1/1995 martxoaren 24koa) eta langilearentzat ikuspegi kohertzitiboa jasotzen du. Izan ere, enpresaren egiaztapen prozedura zein kontrol mekanismoak aipatzen ditu, hala nola, langilearentzat izango dituen ondorioak, lan kontratuaren etetea barne (52.2 artikulua).

EUROPAR BATASUNeko estatuen arteko alderaketak egiteko baliatzen den absentismo tasa langileon babes sozialaren bilakaerari loturik aurkezten da. Hau da, absentismoaren arrazoi justifikatuak langilearentzat babes sozialaren hedapena dakartela oinarri gisa harturik, onura gisa aurkezturik. Hala ere, eta aurrerago ikusiko dugun bezala, 2020.urtean EUROSTAT-ek absentismo tasaren barnean ERTE-etan zeuden langileen lan egin gabeko orduak kokatu zituen, estatuen arteko metodologia komuna ezarri asmoz, patronal handien interesen alde.

ESTATISTIKA ERAKUNDE OFIZIALEK ez dute absentismoa bere horretan neurtzen, ez dago lan absentismoa deritzon adierazlerik. Hutsune metodologikoak izan ditzakeen koefizientea baliatzen da absentismoa datuetara eramateko, adosturiko ordu eta, oporraldiak kanpo utzita, lan egin gabeko orduen arteko koefizientea, hain zuzen ere. Espainiar estatuko koefizientea kalkulatzeko, INE-k hiru hilean behin publiko egiten duen “Encuesta sobre Coste Laboral” baliatzen da. HEH-ari dagokionean, ezinezkoa da inkesta horretatik datu zehatzak baliatzea, EAE eta Nafarroako lan egin gabeko egunen baitan opor egunak ez direlako desagregatzen. Beraz, HEH-rako aurkezten zaizkigun absentismo datuek opor egunak barnebilduta daude edota publikoak (eta denon eskura) ez diren bestelako bideen bidezko neurketa eginez eskuratzen dira. IEH-ari buruzko datu ofizialik ez dago.

Eta puntu honetara iritsita, nabarmendu behar dugu absentismoari buruzko datuak patronalaren interesen aldeko Kontsultoriek publiko egiten dituztela, modu sistematizatuan. Absentismo datu hauen atzean langileon eskubideak ezkutatzen dira eta justifikatu gabeko huts egiteekin batera multzo berean kokatu, desagregaziorik gabe, langileek lanean dituzten huts egiteak ideario alper baten batean kokatuz/ irudikatuz.

Modu honetan, patronalak ezarri nahi duen marko politikoa indartzen da, langileon eskubide zein lan baldintzatan murrizketak justifikatzeko edota aldeko iritzia sustatzeko. Beraz, azkenaldian ikusten ari garen bezala, absentismoa kapitalak jendartean instalatu nahi duen marko politiko- ekonomikoa eraikitzeo bitarteko garrantzitsua bilakatu da eta politika publikoetan eragiteko tresna.


- Jarraian, Europar Batasuneko absentismo tasak biltzen dituen taula dugu. Kasu honetan, ikus daiteke absentismo tasa babes sozial sistemaren egonkortasun zein sendotasunarekin harremanean dagoela, langileon babesa handiagoa denetan absentismo tasa handitzen delako eta alderantziz.

| EUROPAR BATASUNeko ABSENTISMO TASAK, 2024.URTEKO BATAZBESTEKOAK |      |
|-----------------------------------------------------------------|------|
| Finlandia                                                       | 15,3 |
| Frantziar estatua                                               | 13,7 |
| Danimarka                                                       | 12,8 |
| Alemania                                                        | 12,1 |
| Espainiar estatua                                               | 11,8 |
| Suitza                                                          | 11,2 |
| Hungaria                                                        | 7,1  |
| Polonia                                                         | 6,2  |
| Errumania                                                       | 2,3  |

Iturria: EUROSTAT

- Hurrengo grafikoan, INE-ren datuetatik abiatuta, EAE eta Nafarroa Garaiko absentismo tasaren bilakaera aurkezten da. Bilakaeran arreta deitzen du 2020ko pandemiaren testuinguruan absentismoa igo izana, ekonomiaren ia erabateko geldialdia jazo zelarik. Arestian esan bezala, 2020. urtetik aurrera ERTE-engatik lan egin gabeko egunak, absentismoaren baitan sartzeko Europako metodologia aldaketak, igoera esponentzial honetan zuzeneko eragina izan du<sup>1</sup>. Bada, 2020. urteko 2. hiruhilekotik aurrera, arrazoi tekniko edo ekonomikoak tarteko, lan egin gabeko orduak izugarri igo ziren espainiar estatu mailan INEren arabera, industrian eragin handiagoa duelarik. Industriak HEHan duen pisua ikusita, eragin handiagoa izango duela pentsa liteke. Bestalde, COVIDak berak sorturiko osasun arazoak edota egoerari aurre egiteko harturiko neurriek (kontaktu izango ondorengo berrogeialdiak - bajak, adib), tasaren igoera handia ekarri zuten. Ondoren, neurriak malgutzen joan ziren, ustezko normaltasunera bueltatzeko.

### ABSENTISMO TASAREN BILAKERA, BI LANALDIAK KONTUTAN HARTUTA. EAE ETA NG, 2012 -2024



Iturria: INE

<sup>1</sup> 2020. urtean ERTEen datuak hilabetez hilabete jaso genituen, HEH-ko urte osoko egoera erreala ezin neurtuz, Gizarte Segurantzak ez baitzuen urtekaririk egin. Absentismo tasa neurtzeko erabiltzen den INE-ren "Lan-kostuari buruzko Inkesta"-n kontutan hartu ziren, datua zehaztu ez arren.

## ... LANGILEON ESKUBIDEAK ERE DIRA!

**A**restian aipatu bezala, absentismo tasen baitan, langileen eskubideak ezkututzen dira eta lanean huts egindako egunen baitan kontabilizatzen dira. Hau guztia modu interesatuan egiten dela azpimarratu behar dugu, errealitatea desitxuratuz. Jarraian, iturri ofizialetatik eskuratu ahal izan ditugun hainbat datu aurkezten ditugu, absentismo tasa orokorraren baitan kokatu ohi direnak, baina langileen eskubideak direnak. Era berean, aipatu behar dugu zenbakietara eraman ditugunak ez direla guztiak, bestelako daturik eskuratzeko ezinezkoa izan baita (adib, oso ohikoak diren lizentzien bidezko ordu kopurua).

- **Ordezkaritza sindikala (2024.urtea).** HEHko ordezkari sindikal guztiei dagozkien orduen batura, enpresa tamainaren arabera dagozkien orduak kontutan hartuta, lan egin gabeko orduen % 0,4 da.
  - Minimoetan oinarrituriko kalkulua dela nabarmendu behar dugu, Lan Hitzarmenak edota sail sindikalaren sorrerak ordu kopurua hobetzen baitute. Kasuz kasuko azterketa egitea, ordea, ezinezkoa da.
  - Ordu sindikal guztiak gastatzen ez diren ustea konputu maximotik eratortzen da. Beraz, ezin dugu baieztatu minimoetan oinarritzen den kopuru honek soberakinak izan ditzakeela, ez dakigulako.
- **Gurasotasun baimenak (2024).** Azken urteetan egoniko lege aldaketek (jauzia 2019.ean, bi gurasoen baimenak 16 asteetara berdinduz), guraso biek haur jaio berrien zaintzari dagozkion baimenak orekatzeko bidea ireki dute. Modu honetan, haur jaio berrien zaintzarako baimena, lan egin gabeko orduen % 11,7 izan ziren.
  - Haurren zaintza orokorrari dagokionean, ordea, oraindik orain zailtasunak daude baimenak eskatzeko eta emakumea da arduradun nagusia.
- **Lan osasuna (2024).** Absentismoaren arrazoi nagusia lan osasunari loturiko arazoek eratorritakoak dira, izan lan kontingentzia edo izan kontingentzia arrunta. Zehazki, Aldi baterako Ezgaitasuna (AE) da absentismorako ohiko arrazoa. Zehazki, lan egin gabeko orduen %75a da AE-ek eraginda.

Ondorioa oso argia da: **absentismo tasa residuala da eta inolako aurre-azalpenik eman gabe lanean huts egiten duten langileen kopurua ez da esanguratsua.** Aldiz, absentismotzat jotzen duten ke-lainoaren ia %100a langileoi dagozkion eskubideak egikaritzeagatik lantokian lan egin gabeko egunak dira. Era berean azpimarra egingo dugu, orduok zaintza lanetan, izan seme-alabena nola gure osasunaren zaintzan, edota langileen aldeko borroka sindikalean eman ditugula.

Europako zenbait herrialdeetan absentismoa lan baldintzen hobekuntza eta BABES SISTEMAREN osasunarekin harremanean dagoela ulertzen da. Horren adierazle da gero eta absentismo tasa altuagoak dituztela langileen aldeko babes politikak sendoagoak/ zabalagoak/ efikazagoak diren neurrian. Jarraian, esanguratsuak iruditu zaizkigun hainbat herrialderen kasuak aipatuko ditugu<sup>2</sup>.

- **Herrialde Nordikoak (Suezia, Danimarca, Finlandia).** Absentismo tasa erlatibo nahiko altuak dituzte (%14,95 - %12,75 - %15,30, hurrenez hurren). Datu hauen atzean, babes handiko lan politikak daude, lan gaixotasunengatik bajak eta gurasotasun baimen zabalak ahalbideratzen dituztenak. Herrialde hauetan, absentismoa ez da arazo bat, ongizate sistema sendoaren ondorio baizik.
- **Ekitaldeko Herrialdeak (Polonia, Hungaria, Errumania).** Absentismo tasa baxuagoak dituzte (%6,2 - %7,1 - %2,3, hurrenez hurren), neurri batean babes sozial txikiagoa eta lan- kultura zurrunago baten ondorioz. Hala ere, honek ez du adierazi nahi lan baldintza hobekuntza dituztela, baizik eta langileek gaitasun gutxiago dituztela lanean huts egiteko (justifikaturiko arrazoiengatik ere bai).
- **Alemania eta Frantzia.**
  - Alemaniak absentismo tasa moderatua du (%12,1), lan gaixotasunen prebentzioari dagokionean, langileen lanera-buelta azkarrean oinarrituta.
  - Frantziar estatuak tasa altuagoa du (%13,7), garraioa edota osasuna bezalako sektoreetan, non lan-estresa nabarmena den.



- **Espainiar estatua.** Europako batz bestekoan kokatzen da, lan egindako orduen %11,8ko absentismo tasarekin (Herrialde Nordikoetan baino baxuagoa, Ekialdeko herrialdeetako baino altuagoa).

HEHko absentismo tasa Espainiar zein Frantziar estatuko tasa baino baxuagoa da. EUROSTATEk erabilitako metodologia eta gurea ezberdina denez, ez da erabat konparagarria, nahiz eta egoerari neurria hartzeko baliagarria izan<sup>3</sup>.

| ABSENTISMO TASA,URTEKO BATAZ BESTEKOA, 2023 -2024 |         |          |      |         |          |      |
|---------------------------------------------------|---------|----------|------|---------|----------|------|
|                                                   | 2023    |          |      | 2024    |          |      |
|                                                   | Hego EH | Nafarroa | EAE  | Hego EH | Nafarroa | EAE  |
| Osotasunean                                       | 8,93    | 7,98     | 9,24 | 9,10    | 8,16     | 9,41 |
| IT-gatik tasa                                     | 6,85    | 6,07     | 7,11 | 6,84    | 5,36     | 7,32 |

Iturria: guk egina, INE-ren "lan kostuei buruzko Inkesta"tik ateratako datuetatik

3      Guk egindako kalkulua, absentismo tasa kalkulatzeko erabiltzen den metodologia baliatu dugu (lan egindako ordua eta adosturiko orduen koefizientea), EAE zein Nafarroako datuak ponderatuz eta INEk eskaintzen dituen datuak.

## LAN MERKATUAREN ERREALITATEA ZEHARKATZEN DITUZTEN ADIERAZLEAK. PREKARIETATEA OINARRI DITUZTEN LAN ETA BIZI BALDINTZAK

HEHKO PREKARIETATE INDIZEA %49,01EKO DA


**P**rekarietatea Hego Euskal Herrian egiturazkoa da eta lan zein bizi baldintzen oinarrietan instalatuta dago. Modu honetan, enplegua eduki arren, 25 eta 64 urte arteko 2 herritarretik batek ez ditu diru-sarrera nahikoak modu duinean bizitzeko.

Azken kalkuluetatik Prekarietate Indizeak ez du apenas gorabeherarik eduki prekarietate egoeran bizi den herritarren proportzioari dagokionean. Indizeak barnebiltzen dituen aldagaien bilakaeran, ordea, prekarietatea lan merkatuaren zutabeetan instalatzen ari dela baieztatzen duten joerak gero eta nabarmenagoak dira. Izan ere, langabezian langile gutxiago eta egoera inaktiboan gehiago egon arren<sup>4</sup>, 20.300 langile gehiago dago 1.600€ edo diru sarrera baxuagoak dituztenak (azken bi urteetan %5,3ko igoera suposatzen du). Bizitzaren etengabeko garestitzeak edota etxebizitzaren prezioaren neurrigabeko igoerak are eta ezinezkoagoa bilakatzen du bizitza duina bermatzea.

Honi gehitu behar diogu, HEHko pentsionisten %33ak estatu espainiarrean ezarritako Gutxieneko Soldatatik (1.134€) beherako pentsioa jasotzen duela<sup>5</sup>, horietatik %67a emakumeak direlarik. Era berean, Gutxieneko Pentsioa (1.134€) eta pentsio maximoaren artean pentsiodunen %57 kokatzen denez, kopuru handi bat 1.134€tik gertu kokatuko dela pentsa liteke, egoera prekarioan bizi diren herritarren kopurua handituz.

### PREKARIETATE INDIZEA HEGO EUSKAL HERRIAN 2024

10



■ Prekarietate egoeran bizi da

ENPLEGU ERREGULARIZAZIO ESPEDIENTEEN ERAGINPEAN, ALDI BATERAKO KALERATZEEN BIDEZ LANEAN EGINDAKO HUTS EGITEAK, ABSENTISMO TASAN BARNEBILTZEN DIRA 2021.URTETIK.


2020.urtean EUROSTAT-ek barne arautegia egokitu zuen (2019/1700, 2021.urteetik aplikagarria), EB-ren enplegu eta langabezia neurtzeko arauak aldatuz. Modu honetan, absentismoaren baitan laneko huts egiteez gain, aldi baterako kaleratzeak ere barnebiltzen dira. Teknikoki, datu-seriean etendura bat suposatzen du, 2021tik aurrerako datuak ez direlako aurreko urteetakoekin alderagarriak. Praktikan, krisialdi bati ustezko erantzuna emateko baliatu zen neurri bat (gogora dezagun Covid garaian, ekonomiaren ia erabateko geldialdiaren ondorioz, enpresa askotan ERTE-ak indarrean sartu zirela) langileek aldebakarrez harturiko erabakia bailitzan neurtuko da estatistika ofizialetan. Politikoki, espainiar estatuaren kasuan, langileen interesen aurkako tresna gisa baliatuko da, araudiaren aldaketaren ondorioz, absentismo tasaren gorakada jazo delako. Arestian esan bezala, espainiar estatuan, absentismoa langileen lan utzikeria gisa ulertzen da, absentismoa murrizteko beharra hedatuz; Europako beste herrialde batzuetan, ordea, babes sistemaren zein langile eskubideen hedapenarekin lotzen da eta zentzu positiboa du.

Araudi aldaketa honek gaur egunean ere ondorioak izango ditu. Izan ere, azken urtean gora egin du Enplegu Erregulazio Espedienteen eraginpean dauden langileen kopuruak. Eskuratu daitezkeen datuak espediente kopuruari dagozkio, aipatu espedienteek zenbat lan orduri eragiten dien jakitea ezinezkoa delarik.

4 EPA, 2024ko urteko batzbestekoak

5 Espainiar estatuko Gizarte Segurantzak, 2024ko urriko datuak

Aipatu bezala, 2020-2021 urteetan ERTE kopuruak igoera nabarmena izan zuen Hego Euskal Herrian, batetik, COVID sindemia ekarritako ekonomiaren ia erabateko geldialdiari aurre egiteko eta, bestetik, osasun larrialdiak sorturiko osasun arazoei zein harturiko neurriengatik (kontaktu izanagatik berrogeialdian egonaraztea, adib). Jarraian duzun grafikoak ikus daitekeen bezala, azken urtean, EREE kopuruak berriro ere gora egin du, bereziki manufaktura industrian<sup>6</sup>.



EEE-ak aztertzeko enpresak ematen dituen arrazioen artean, produkzioari loturiko arrazoiak nagusi izaten jarraitzen badute ere, azken urtean jaitsi dira eta antolakuntza arrazoiak zein teknikoek egin dute gora bereziki. Tamainari dagokionean, 250 langiletik gorako enpresatan gero eta langile gehiagori eragiten diote espedienteak (5.000 langile baino gehiagoko enpresei izan ezik).


Eusko Jaurlaritzak 2024.urtean 258 espediente tramitatu zituen. Tramitatzen ari diren espediente hauek eragiten dioten langile kopuru handia dela medio, Durangaldea (2.211 langile espedienteen eraginpean), Aiaraldea (1.412 langile) eta Lautada (1.218) eskualdeetan gerta daitekeen enplegu galera oso handia izan daiteke. Eskualdeari bere osotasunean eragiteaz gain, herri zehatzetan inpaktu oso handia izan ditzakete, ERE-ek langile kopuru handiari eragiten baitiote. Azkenaldian tramitatu diren ERE-ek ehunka langileren kaleratzea ekarri dute, besteak beste: BSH 655 langile, Guardian 171 langile, SDA 54 langile, Bridgestone 335 langile, Sunsundegi 341 langile...

## LAN MERKATUAREN ZAHARTZEAK, ZAINITZA ETA OSASUN ARRETARAKO DENBORA GEHIAGO ESKAINTZEA DAKAR

Joera demografikoak eragin zuzena du lan merkatuan; langileen zahartze orokortua gertatzen ari baita. Izan ere, 2023.urtean aktiboen artean, bereziki 55 urte edo gehiagoko langileen kopuruak egin zuen gora. Azpimarratzekoa da 55 urtetik gorakoen okupatu (2002an %10,1a izatetik, 2024ean %23,2a izatera igaro dira) zein langabeen kopuruak (2002an %5,3a ziren eta 2024ean %18,8a dira) izaniko gorakada. 16 eta 24 urte arteko adin tarteko langileen artean, kontrako joera gertatu da: okupatu kopuruak behera eta langabeak antzerako balioetan mantendu baitira.<sup>7</sup>

<sup>6</sup> Metodologia aldaketaren ondorioz (eta ziurrenik, aitzakia baliatuz), EAE eta Nafarroa Garaiko 2020.urte osoko daturik ez dugu eta hilabetez hilabete publiko egin zirenak ez dira baliagarriak urteko batez bestekoa egiteko.

<sup>7</sup> IKUSMIRAN 19, Jendarte, lan merkatu, lan harreman eta botere sindikalaren azterketa.



Zahartze prozesuak berez dakar osasunaren zaintzari denbora gehiago eskaini behar izateak, gaixoaldi gehiago edota luzeagoak izateko aukera handitzea. Lan osasunari dagokionean, arriskuak areagotzen dira; prebentzioa neurri berean areagotzen ez den arren. Beraz, joera soziodemografikotzat har genezake lan merkatu zaharrago batek osasun arreta handiagoak behar izatea eta, ondorioz, lan osasunari dagozkion baja kopurua handitu zein luzeagoak izateak. Absentismoaz hitz egin baino, adinean aurrera joan ahala, prebentzioan eta zaintzan jarri beharko genuke arreta.


12

## OSASUN SISTEMA PUBLIKOAREN MURRIZKETEK, GURE OSASUNEAN ERAGITEN DUTE ETA GAIXOALDIK BALDINTZATU

Aldi baterako Ezintasuna da lan egin gabeko ordu kopuruen gehiengoaren atzean dagoena. Langileon zahartze prozesuaz gain, osasun sistema publikoaren murrizketak zein pribatizazio prozesuek ere baldintzatzen dituzte langileon gaixoaldiak.

Itxaron zerrendetako batzuek besteko itxaronaldiak luzatu dira eta horrek Aldi baterako Ezintasun baten iraupenean eragina du, diagnostiko eta ondorengo tratamendua horren arabera eta ondoren ezartzen baita.

### 4. irudia: Itunpetzeak osasun aurrekontuan



Grafika hau Kapitalari planto ekimenak 'Osakidetzaen Harrapaketa Korporatiboa' lanetik ekarri dugu.

Osakidetza 2021 eta 2023 urteen artean, espeziaren lehen kontsultarako itxaronaldiak 24 egunetik 44 egunera luzatu ziren eta itxaronaldi kirurgikoa 62 egunetik 68 egunera<sup>8</sup>. Osasun Sailak Eusko Legebiltzarrera igorritako datuetan oinarriturik, itxaronaldi kirurgikoa 57,62 egunera murriztea lortu da<sup>9</sup>. Murrizketa honen atzean Osakidetzaen indartzea baino, pribatizazio

8 Osasun Ministeritza, urte bakoitzeko ekaineko datuak dira.

9 Osasun Saila, 2025ko otsailak 11

prozesua ezkututzen da, itaundutako jarduerak handitzen ari baitira, LAB sindikatuak behin eta berriro salatu duen bezala. Aurrekontuei erreparatuta, azken datu ofizialen arabera 2024an itunpetze sanitarioei Osasun Sailaren gastu osoaren %5,10 bideratu zen, alegia, 2023tik %9,1ko igoera. Kopuru horiei gehitu behar zaizkio itunpetze soziosanitarioei dagozkien 6,49 milioi euro, aurreko urtearekiko %47ko igoera suposatzen duena<sup>10</sup>.

Osasunbideako itxaron zerrendek ildo beretik burua eta itxaron zerrendak handitu egin dira, azken urteetan itaundutako zentroetan proba osagarrien kopurua izugarri handitu den bitartean.

| ITXARONALDIAN DAUDEN PERTSONAK, ITXAROTEN ARI DIREN DENBORAREN ARABERA.<br>OSASUNBIDEA, 2019 - 2024 |      |    |            |    |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------|------|----|------------|----|
|                                                                                                     | 2019 | %  | 2024 (m24) | %  |
| 3 hilabete edo >                                                                                    | 5332 | 66 | 6185       | 71 |
| 3 eta 4 hilabete artean                                                                             | 1123 | 14 | 642        | 7  |
| 4 eta 5 hilabete artean                                                                             | 502  | 6  | 2593       | 7  |
| 5 eta 6 hilabete artean                                                                             | 248  | 3  | 512        | 6  |
| 6 hilabete edo <                                                                                    | 832  | 10 | 826        | 9  |
| Pertsonak guztira                                                                                   | 8037 |    | 8758       |    |

Iturria: guk egina, Osasunbidea/NOPLOI-ren datuetatik abiatuta

LANGILEEK ADOSTURIKO ORDUAK BAINO GEHIAGO LAN EGITEN DUTE ORDU ESTREN BIDEZ, 2020.URTEAN HORIETATIK %63,58A ORDAINDU GABEKOA IZANIK.

Ordu estren errealitateak absentismo tasaren ke-lainoarekin zuzenean talka egiten du, langileok hitzartuta ditugun orduak baino gehiago lan egiten ditugulako, horietatik asko, ordaindu gabeak

1996tik gora egin du ordainduak ez diren ordu estraren kopuruak, 2020 urtekoak direlarik EUSTAT-ek 4 urtean behin eginiko Inkestaren azken datuak. Datuon arabera, langileen %57,8-ak ez du ordu estrarik egiten, aldiz, soldatapekoen %26,8-a da ordaindu gabeko ordu estrak egiten dituztenak. Era berean, nabarmendu behar dugu ordu estren %63,58 ordaindu gabeak dira, 1996tik proportzioa handitzen ari delarik.

| ORDU ESTRA EGITEN DUTENEN ARTEAN,<br>KOBRTZEN EZ DUTENAK |         |        |
|----------------------------------------------------------|---------|--------|
| 1996                                                     | 187.810 | %45,28 |
| 2000                                                     | 244.137 | %44,92 |
| 2004                                                     | 264.112 | %42,56 |
| 2009                                                     | 248.938 | %43,11 |
| 2013                                                     | 300.347 | %62,40 |
| 2016                                                     | 286.680 | %57,47 |
| 2020                                                     | 355.438 | %63,58 |

Iturria: Lan baldintzei buruzko Inkesta. EAE-ko Lan eta Enplegu Saila

EUSTAT-ek publikatzen dituen datuekin ezin da kalkulatu ordu estren proportzioa zenbat ordu zehatz diren. Aldiz, INE-ren “Lan konstuei buruzko Inkesta”-tik abiatuta, zehaztaperen gehiago eskuratu ditugu. Modu honetan, HEHa-n 2024ean 506.438 ordaindutako ordu estra egin ziren, 2023.urtean baino gehiago.

| HILABETEAN ORDAINDUTAKO ORDU EXTRA |         |          |         |
|------------------------------------|---------|----------|---------|
|                                    | Hego EH | Nafarroa | EAE     |
| 2023                               | 482.205 | 157.364  | 324.842 |
| 2024                               | 506.438 | 171.917  | 334.521 |


Iturria: elaborazio propioa INE (lan denboraren banaketa) eta Eustat-eko datuetatik abiatuta

Eustat eta INE-ko datuak hartuta, ordaintzen ez diren 583.954,74 ordu estra daude, patronalaren mozkinetara zuzenean doazenak. Ordu estra kopuru honek benetako arazo bat suposatzen du, langileentzat dituen ondorio zuzenengatik (osasun arazoak, lan istripuak...), eta enplegu suntsiketan laguntzen duelako: ordu estra horiek hilabeteen langileok batz bestea egiten ditugun ordu kopuruak hartuta, 3.893 langileen soldatak aurrezteak dakarrelako, edo banatzen ez duten lanagatik ia 4.000 langile gutxiago daude gizarte segurantzaren kotizatzen.

LAN GAIXOTASUNAK AREAGOTU ARREN,  
PREBENTZIO ZERBITZUEK GERO ETA GUTXIAGO JAKINARAZTEN DITUZTE

2013.urtetik prebentzio zerbitzuek oro har, eta zehazki, kanpo prebentzio zerbitzuek, gero eta lan gaixotasun gutxiago jakinarazi dituzte, Osalaren arabera, azken urtean lan gaixotasunak %8,8 handitu diren arren EAE<sup>11</sup>.

14



Aldi berean, datu hauen atzean dagoen errealitate ezkutua salatu behar dugu. Izan ere, Mutualitateek gero eta gehiago estutzen dituzte kanpo prebentzio zerbitzuak, lan gaixotasunen izaeraren aitortza oztopatuz. Egoera hain da larria, Osalaren baitan “laneko gaixotasun susmoa” prozedura zabaldu duela, Osakidetza medikuek baliatu dezaten.

Jarraian agertzen den grafikoan, lehen mailako arreta zerbitzuek lan gaixotasunaren jakinarazpenean izaniko gorakada azpimarratuko genuke, oraindik orain, jakinarazten diren lan gaixotasunen kopurua oso urria izan arren.

11 Osalan, 2025eko apirilko datuak. “Lan-istripu eta lan gaixotasunen datu metatuak” bajadun eta bajaran gabeko lan gaixotasunak kontutan hartuta)

## LAN GAIXOTASUNEN JAKINARAZPENAK, ITURBURUAREN ARABERA, 2013-2023. EAE

